# SAREGIN

## Euskara kudeatzeko aplikazioa



## 1. ATALA

Izena eman eta lehenengo aldiz aplikazioan sartu.

## 2. ATALA

Plan estrategikoa. Galdetegiak

## 3. ATALA

Adierazleen jarraipena.



## 4. ATALA

Kudeaketa-planak.

## 5. ATALA

Hizkuntza-irizpideak sortu.

## 6. ATALA

Aginte paneleko 14 adierazleak

1. ATALA

Izena eman eta lehenengo aldiz aplikazioan sartu.

- Non dago SAREGIN aplikazioa? (5-8 or.)
- Nola eskatu alta SAREGIN aplikazioan? (9-11 or.)
- SAREGINen lehenengo aldiz sartu. (12-16 or.)
- Pantaila nagusia. (17-22 or.)

2. ATALA

Plan estrategikoa. Galdetegiak

- Plan estrategikoa sortu. (23-25 or.)
- Adierazleak aukeratu. (26-30)
- Diagnostiko kuantitatiboa. Galdetegiak. (31-58 or.)
- Diagnostiko kualitatiboa. (59-60 or.)
- Erronkak, helburu estrategikoak eta adierazle-mailako helburuak. (61-62 or.)

3. ATALA

Adierazleen jarraipena egin.

- Urtez urteko jarraipena egin. (63-67 or.)
- Adierazleen balioa editatu. (67 or.)
- Euskarazko zein ele bietako balioa ikuskatu. (67 or.)

4. ATALA

Kudeaketa-planak.

- Kudeaketa-plana funtzioa. (68-69 or.)
- Kudeaketa-planaren erregistroa sortu. (70-71 or.)
- Kudeaketa-plana osatu:
  - Adierazleak eta helburuak aukeratu. (72-74 or.)
  - Ekintzak definitu. (75-76 or.)
  - Dokumentuen deskargak. (77-78 or.)

5. ATALA

Hizkuntza-irizpideak sortu.

- Hizkuntza-irizpideen dokumentua aplikaziora igo. (81-82 or.)
- Hizkuntza-irizpideak aplikazioan sortu.(82-86 or.)

6. ATALA

Aginte paneleko 14 adierazleen berri eman.

- Zertzelada nagusiak (87-88 or.)
- 14 adierazleen egoera kuantitatiboa eman. (89-113 or.)
- 14 adierazleen jarraipena egin (114-117 or.)
- Hizkuntza-irizpideen jarraipena egin. (118-119 or.)
- Hizkuntza-irizpideak sortu edo aplikazioara igo.(120-124 or.)

# 1. atala

Aplikazioan izena eman eta lehenengo aldiz sartu.

1. NON DAGO SAREGIN APLIKAZIOA?
2. NOLA ESKATU ALTA SAREGIN APLIKAZIOAN?
3. SAREGIN APLIKAZIOAN LEHENENGO ALDIZ SARTU.
4. PANTAILA NAGUSIA.

1

# NON DAGO SAREGIN APLIKAZIOA?




Saregin aplikazioa Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren webgunean dago eskuragarri. Horretarako erabiltzaileak bide hau egin beharko du:

Euskara planak > Sektore publikoa > Saregin

**LOTURA:**

https://www.euskadi.eus/web01-apeuspl2/eu/ad93aSareginWar/index?locale=eu

## ZENBAT ERAKUNDEREN IZENEAN JARDUN DEZAKE ERABILTZAILE BATEK?

- Erabiltzaile batek hainbat erakunderen izenean jardun dezake.
- Erakunde bakoitzarentzat alta eskatu behar da, hemen azaltzen den prozesua behar bestetan errepikatuz.



- Erabiltzaileak beti erabili beharko ditu IDENTIFIKAZIO-ZENBAKI, POSTA HELBIDE eta TELEFONO BERDINAK erakunde batean baino gehiagotan aritzen denean. Horrela, aplikazioan sartzean, kudeatzen dituen erakunde guztiak agertuko zaizkio.
- Erakunde baten izenean jarduteko pertsona batek baino gehiagok alta eskatzen badu, hauxe hartu behar da kontuan:
  - Erabiltzaile bakoitzak bere identifikazio dokumentua adieraziko du.
  - Erabiltzaile bakoitzak bere posta helbidea erabili beharko du.
  - Erabiltzaile bakoitzak bere telefono zenbakia erabili beharko du.
  - Erabiltzaile bakoitzak jasoko ditu bere erabiltzailea (alta eskaerarako erabilitako dokumentua) eta bere pasahitza.
  - Erakunde bateko erabiltzaile guztiek aplikazioan lan egin ahalko dute.

## ZENBAT PERTSONA BAIMENDU DEZAKE ERAKUNDE BATEK?



- Erakunde batek behar beste erabiltzaile baimendu ditzake Saregin aplikazioa erabiltzeko.
- Baimendutako erabiltzaileak erakundeari egongo dira lotuta, eta ez plan estrategikoari.
- Erabiltzaile batek edozein unetan eskatu ahal du alta ematea Saregin aplikazioan.

2

# NOLA ESKATU ALTA SAREGIN APLIKAZIOAN?

# NOLA ESKATU ALTA SAREGIN-EN ERAKUNDE BATEKO PERTSONA BAIMENDU GISA?

1 Erakundeak bere izenean Saregin aplikazioa erabiltzeko baimen-inprimakia (AriGaran eskuragarri) bete eta saregin@euskadi.eus posta helbidera bidali.

2 Aplikazioan Erakundeko pertsona izendatu gisa alta ematea eskatu funtzioan sartu.




3 Alta-formularioa bete eta bidali








## ERABILTZAILEA NOIZ HAS DAITEKE SAREGIN ERABILTZEN?

- Alta-formularioa bidalitakoan, mezu hau agertuko da:




- Horrek esan nahi du HPSko kudeatzaileek, eskatzailearen datuak egiaztatuta, eskaera onartuko dutela.

- Behin eskaera onartuta, erabiltzaileak adierazitako posta helbidean mezua jasoko du bere erabiltzailea (identifikazio dokumentuaren zenbakia) eta pasahitzarekin.

- ERAKUNDE BAKOITZERAKO PASAHITZA DESBERDINA IZANGO DU ERABILTZAILEAK?

Ez, erabiltzaileak pasahitza bera erabiliko du erakunde guztietan jarduteko.

Areago, behin erakunde batean alta emanda, beste batean alta eskatzen duenean, defektuz aurreko mezua agertuko zaio, baina erabiltzailea eta pasahitza jakinarazteko mezurik ez du jasoko bere korreoan. Erabiltzaile berriek baino ez dute mezua jasoko.

- NOLAKOA DA PASAHITZA?
  - Ausaz sortutako pasahitz generikoa da, hizkiz, zenbakiz eta ikurrez osatutakoa.
  - Erabiltzaileak ezingo du aldatu, baina, galduz gero, pasahitz berria eskatu ahalko du, behar bestetan.




Erabiltzaile bat erakundearen pertsona izendatua izateari uzten dionean, erakundea bera arduratuko da horren berri emateaz saregin@euskadi.eus posta helbidean. Hori eginda, HPSko kudeatzaileek erakunde eta pertsona horren arteko lotura desaktibatuko dute.

3

# SAREGIN APLIKAZIOAN LEHENENGO ALDIZ SARTU

- ## ERABILTZAILEAK ZER EGIN BEHAR DU SAREGIN-EN LEHENENGO ALDIZ SARTZEKO?

Erabiltzaile berria Erakundeko pertsona izendatu gisa saioa hasi funtzioaren bidez sartu behar da aplikazioan, bere erabiltzaile (identifikazio-dokumentuaren zenbakia) eta pasahitzarekin identifikatuta.






# APLIKAZIOAN SARTU AURRETIK, ERABILTZAILEAK ARGI IZAN BEHAR DU ZERTARAKO ERABILIKO DUEN APLIKAZIOA:

**1. erabilera**

**ERAKUNDEAREN PLAN ESTRATEGIKOA SORTU ETA KUDEATU**

### SAREGIN aplikazioan erakundearen plan estrategikoa sortzeak zein aukera eskaintzen ditu?

- Aukeratutako adierazleen balioa automatikoki lortzeko galdetegiak sortu, bidali eta kudeatu.
- Aukeratutako adierazleen ehunekoak eskuz sartu.
- Plan estrategikoaren urtez urteko jarraipena egin.
- Plan estrategikoari lotutako kudeaketa-planak sortu.
- Hizkuntza-irizpideak aplikazioan sortu edo dokumentua igo.

**2. erabilera**

**AGINTE PANELEKO 14 ADIERAZLEEN BERRI EMAN**

### SAREGIN aplikazioan derrigorrezko 14 adierazleen berri emateak zein aukera eskaintzen ditu?

- 14 adierazleen balioa automatikoki lortzeko, galdetegiak sortu, bidali eta kudeatu.
- 14 adierazleen ehunekoak eskuz sartu.
- 14 adierazleen urtez urteko jarraipena egin.
- Hizkuntza-irizpideak aplikazioan sortu edo dokumentua igo.

## ERAKUNDE BATEN IZENEAN LEHENENGO ALDIZ SARTZEAN, ERABILTZAILEAK ARRETAZ IRAKURRIKO DU ONDORENGO MEZUA:




Agertuko den mezuan adierazi bezala, erabiltzaileak Saregin plan estrategikoa sortzeko erabiliko badu, erakundea hautatu beharko du.

Agertuko den mezuan adierazi bezala, erabiltzaileak Saregin 14 adierazleen berri emateko erabiliko badu, ez du erakundea hautatuko.

# BESTELAKO ZALANTZAK

## 1

### SAREGIN APLIKAZIOAREN EDUKIA GAZTELANIAZ ERE BADAGO?

Bai, pantaila orokorraren goiko aldean, ezkerrean, hizkuntza aldatzeko aukera dago (EU/ES). ES sakatuz gero, edukia gaztelaniaz agertuko da.

## 2

### ZER GERTATZEN DA, LANEAN HASI AURRETIK, ERABILTZAILEAK APLIKAZIOA ERABILTZEKO MODALITATEA ALDATU NAHI BADU? ?

- Erabiltzaileak ez du aukerarik bere hasierako aukeraketa aldatzeko.
- Arazoa konpontzeko, HPSko administratzaileekin jarri behar da harremanetan (saregin@euskadi.eus).

## 3

### ZER GERTATZEN DA, BEHIN LANEAN HASIZ GERO, ERABILTZAILEAK EGINDAKO AUKERAN ATZERA EGIN NAHI BADU?

- Erabiltzaileak ez du aukerarik bere aukeraketa aldatzeko.
- Arazoa konpontzeko, HPSko administratzaileekin jarri behar da harremanetan (saregin@euskadi.eus).
- Orduko egindako lan guztia galdu egingo du.

# 4

# PANTAILA NAGUSIA

# • SAREGIN APLIKAZIOAK ZEIN FUNTZIO ESKAINTZEN DIZKIO ERABILTZAILEARI

Pantaila orokorretik erabiltzaileak eskura izango ditu erabilgarri dituen funtzionalitate guztiak:




- HASIERA: Saioa itxi barik, erabiltzailea kudeatzen duen beste erakunde batera aldatu.
- ADMINISTRAZIOA: erakundearen datuak aplikazioan sartzeko eta, dagokionean, editatu.
- PLAN ESTRATEGIKOA: plan estrategikoarekin lotutako jarduera guztiak burutu.
- KUDEAKETA-PLANAK: kudeaketa-planekin lotutako jarduera guztiak burutu.
- HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK: hizkuntza-irizpideekin lotutako jarduera guztiak burutu.
- ADIERAZLEEN JARRAIPENA: erakundearen egoera kuantitatiboaren jarraipena urtez urte egin. Adierazleen balio kuantitatiboak ikusgai.
- GALDETEGIAK: langile zein erakunderaren galdetegiak, sortu, bidali, erantzun, kudeatu eta kalkuluak agindu.
- ERABILTZAILE-ESKULIBURUAK: dokumentazioa, eskuliburuak, loturak...

## • ERABILTZAILEA HAINBAT ERAKUNDETAN ALTA EMANDA BADAGO, SAIOA IREKITZEAN, NOLA AUKERATUKO DU ERAKUNDEA?

- **Erabiltzailea erakunde bakar batean alta emanda badago, zuzenean sartuko da erakunde horretan aplikazioan saioa hasten duenean.**

- **Erakunde batean baino gehiagotan alta emanda dagoenean, saioa hasitakoan, erakundeen zerrenda agertuko zaio, eta bertan aukeratuko du zein erakunderekin lan egin nahi duen momentu horretan.**



- ## ADMINISTRAZIOA

Administrazioa funtzioaren bidez, erabiltzaileak erakundeari buruzko hainbat datu eman beharko ditu, edozein unetan editatu ditzakeenak. Horretarako, Administrazioa > Erakundeak sakatu, eta Erakundeak izeneko pantailan erakundearen gainean klikatuta, "Editatu" botoia aktibatuko da. Bertatik Aldatu erregistroa leihoan erakundearen datuak aldatu ahalko ditu.









## • PLAN ESTRATEGIKOA

**Funtzio honek aukera hauek guztiak eskaintzen ditu:**

| | |
|---|---|
| **Plan estrategikoa sortu** | Planaren zehaztasunak adierazi (izena, indarraldia, plangintzaldia). |
| **Adierazleak aukeratu** | Plan estrategikoa osatuko duten adierazleak aukeratu. |
| **Edukia** | Diagnostiko kualitatiboa zein kuantitatiboa, aurreikuspen kuantitatiboak, erronkak, helburu estrategikoak eta helburuak adierazi, besteak beste. |
| **Editatu** | Planaren zehaztasunak editatu. |
| **Ezabatu** | Plan estrategikoa ezabatu. |
| **Bukatu** | Plan estrategikoa bukatutzat emanda, HPSko administratzaileek ikusgai izango dute. |
| **Onartu** | Onarpenari buruzko zehaztasunak adierazi. |
| **Kudeaketa-planak aztertu** | Plan estrategikoak lotuta dituen kudeaketa-planetara joan. |

## • KUDEAKETA-PLANAK

**Funtzio honek aukera hauek guztiak eskaintzen ditu:**

| | |
|---|---|
| **Kudeaketa-plana sortu** | Kudeaketa-planaren zehaztasunak adierazi (izena, indarraldia...) |
| **Edukia** | Abiatuko diren ekintzak sortu eta zehaztu. |
| **Editatu** | Kudeaketa-planaren zehaztasunak editatu. |
| **Klonatu** | Plan estrategiko bati lotutako kudeaketa-plan bat kopiatu. |
| **Ezabatu** | Kudeaketa-plana ezabatu. |
| **Bukatu** | Kudeaketa-plana bukatutzat emanda, HPSko administratzaileek ikusgai izango dute. |
| **Onartu** | Onarpenari buruzko zehaztasunak adierazi. |

## • HIZKUNTZA-IRIZPIDEAK

**Funtzio honek aukera hauek guztiak eskaintzen ditu:**

| | |
|---|---|
| **Gehitu** | Hizkuntza-irizpideen zehaztasunak adierazi (izena, indarraldia, plangintzaldia). |
| **Edukia** | Hizkuntza-irizpideen lanketa aplikazioan. |
| **Editatu** | Hizkuntza-irizpideen zehaztasunak editatu. |
| **Ezabatu** | Hizkuntza-irizpideak ezabatu. |
| **Bukatu** | Hizkuntza irizpideak bukatutzat emanda, HPSko administratzaileek ikusgai izango dituzte. |
| **Onartu** | Onarpenari buruzko zehaztasunak adierazi. |

- ## ADIERAZLEEN JARRAIPENA

  - Funtzio honen bidez erabiltzaileak plan estrategikoa osatzen duten adierazleen jarraipen kuantitatiboa egingo du.
  - Urtez urteko jarraipena egiteko aukera eskaintzen du aplikazioak.

- ## GALDETEGIAK

  - Funtzio honen bidez, erabiltzaileak, batetik, galdetegiak sortu eta langileentzako bidalketa kudeatuko du; eta, bestetik, galdetegiak erantzun eta erantzun-kopurua kudeatuko du.

# 2. atala

## Plan estrategikoa

1. PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREGISTROA SORTU.
2. ADIERAZLEAK AUKERATU.
3. DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA. GALDETEGIAK
4. DIAGNOSTIKO KUALITATIBOA.
5. ERRONKAK, HELBURU ESTRATEGIKOAK eta ADIERAZLE-MAILAKO HELBURUAK

1

# Plan estrategikoaren erregistroa sortu

## ZER DA PLAN ESTRAGIKOAREN ERREGISTROA SORTZEA?

Erabiltzaileak plan estrategikoaren erregistroa sortzen duenean, nolabait plan estrategikoaren dokumentuaren azala sortzen ari da. Bertan plan estrategikoaren oinarrizko informazioa adierazi beharko du: erakundearen eta plan estrategikoaren izena, indarraldia eta plangintzaldia.

## NOLA SORTZEN DA PLAN ESTRATEGIKOAREN ERREGISTROA?

- Plan estrategikoa funtzioan sartzean Plan estrategikoa sortu botoia baino ez dago aktibatuta. Bertan klikatuta Plan estrategiko berria izeneko leihoa agertuko da, plan estrategikoaren oinarrizko informazioa emateko (izena, hasiera eta amaiera-data eta plangintzaldia).
- Behin sortuta, plan estrategikoaren erregistroa agertuko da pantailan.
- Behin plana onartuta, leiho honetatik onarpen-dokumentua aplikazioan kargatzeko aukera dago.









| Izena | Egoera | Plangintzaldia | Erakundea | Hasiera data | Amaiera data | Onarpena |
|---|---|---|---|---|---|---|
| SUKARRIETAKO PLAN ESTRATEGIKOA | Sortuta | VII. PLANGINTZALDIA | Sukarrietako Udala | 2023/10/05 | 2027/12/31 | - |

2

# Adierazleak aukeratu



## • ZEIN ADIERAZLE AUKERATU ETA ZEIN EZ?

- Defektuz, aplikazioan KEMEN osatzen duten adierazle guztiak aktibatuta daude. Erakundeak aukera du ez dagozkionak edo kontuan hartu nahi ez dituenak desaktibatzeko, aginte panela osatzen duten nahitaezko 14 adierazleak salbu, horiek ezinbestean agertu behar baitira plan estrategikoan.

- 14 adierazle horiek beltzez nabarmenduta agertzen dira, eta gainontzekoek ikono bat dute aurrean: desaktibatzeko, zakarrontzi bat, eta berriro aktibatzeko, gurutze bat.

- Plan estrategikorako aukeratutako adierazleen inguruko galderek soilik osatuko dituzte erakunde zein langileentzako galdetegiak; beraz, ez da galdetuko baztertutako adierazleei buruz.

## • ZER GOMENDATZEN DU HPS-K?

- HPSk gomendatzen du hasiera batean adierazle guztiak aukeratzea, galdetegien bidez ahalik eta informazio kuantitatibo gehien lortze aldera.
- Behin informazioa aztertuta, erakundeak erabaki eta aukeratu ahalko du zeintzuk izango diren plana osatuko duten adierazleak. Horixe jakinaraziko da mezu batean:






## • NOLA AUKERATU ADIERAZLEAK?

Plan estrategikoaren erregistroaren gainean klikatuta, horiz nabarmenduko da eta Adierazleak aukeratu, Editatu, Ezabatu eta Kudeaketa-planak aztertu botoiak aktibatuko dira (urdinduko dira):




Adierazleak aukeratu botoia sakatuta, pantailan KEMENen egitura agertuko da, zabaldu behar dena ARDATZ -ARLO- ADIERAZLE mailako leihoak irekitzeko:



## Ardatz-mailako leihoa

- 1 KUDEAKETA
- 2 ERABILERA

## Arlo-mailako leihoa

1 KUDEAKETA

1.0

- 1.0.1 EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA
- 1.0.2 LIDERGOA
- 1.0.3 LANGILEAK
- 1.0.4 HIZKUNTZA-GAITASUNA
- 1.0.5 EUSKARAREN ERABILERA SUSTATZEKO ESTRATEGIAREN KOMUNIKAZIOA
- 1.0.6 HIZKUNTZA-KLAUSULAK

## Adierazle-mailako leihoa

1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du

**1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da**

+ ~~1.0.1.3 Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).~~

1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du

**1.0.1.2 Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da**

1.0.1.3 Erakundeak neurriak hartzen ditu euskararen indarberritzean positiboki eragiteko, bere lan-jardun eta politika publiko guztien diseinuan, garapenean eta jarraipenean (INPAKTUA EUSKARAREN INDARBERRITZEAN).

- Hautazko adierazleak desaktibatzeko zakarrontziaren ikurra klikatu.
- Hautazko adierazleak aktibatzeko gurutzea klikatu.
- Desaktibatutako adierazleak marratuta agertuko dira.

Erabiltzaileak adierazleak aukeratzen amaitu ez badu, baina aplikaziotik irten behar bada, Gorde aukera erabiliko du, ordura arte egindako lana gordetzeko.

Adierazleak aukeratuta, Bukatu klikatu eta plan estrategikoaren egoera aldatuko da, Adierazleak aukeratuta agertuko da.




| Izena | Egoera | Plangintzaldia | Erakundea | Hasiera data | Amaiera data |
|---|---|---|---|---|---|
| PROBARAKO PLANA | Adierazleak diseinatuta | VII. Plangintzaldia | Asociación de Investigación MPC-Materials Physics Center | 2023/09/07 | 2027/12/31 |

3

Diagnostiko kuantitatiboa.

GALDETEGIAK

%

Diagnostiko kuantitatiboa bi modutan egin ahal da:



1

ESKUZ

Hasierako datu kuantitatiboak (adierazleen hasierako ehunekoak) beste modu batean lortu badira, datu horiek aplikazioan ESKUZ, zuzenean, kargatu ahal dira.



2

APLIKAZIOAREN BIDEZ

Hasierako diagnostiko kuantitatiboa APLIKAZIOAREN BIDEZ egiten bada, galdetegiak aplikazioan sortu, bideratu eta kudeatuko dira eta datu kuantitatiboak AUTOMATIKOKI kalkulatu eta kargatuko dira.

# NOLA SARTU ADIERAZLEEN HASIERAKO EHUNEKOAK ESKUZ?

**1. aukera** PLAN ESTRATEGIKOA funtzioarekin.

PLAN ESTRATEGIKOA > PLANA AUKERATU > EDUKIA > KEMEN-EN ARDATZAK > KEMEN-EN ARLOAK > ARLOKAKO ADIERAZLEAK > HASIERAKO % SARTU.







**2. aukera** ADIERAZLEEN JARRAIPENA funtzioarekin.

ADIERAZLEEN JARRAIPENA > ADIERAZLEA AUKERATU > EDITATU > HASIERAKO EGOERA EHUNEKOTAN











NOLA EGIN DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA APLIKAZIOAREN BIDEZ?

# GALDETEGIAK

## GALDETEGIAK SORTZEKO ETA KUDEATZEKO FLUXUA



# Erabiltzaileak zer jakin behar du galdetegiak sortu aurretik?

1

- Zenbat galdetegi-mota daude?

- Erakundearen galdetegia
- Langileen galdetegia

2

- Zenbat galdetegi sortu ahal dira urte bakoitzeko?

Plangintzaldiaren urte bakoitzean galdetegi bakoitza behin baino ezin da sortu.

3

Galdetegiak zein hizkuntzatan bidali ahal dira?

Erakundearen galdetegia euskaraz eta langileen galdetegia euskaraz eta ele bietan.

# Erabiltzaileak zer jakin behar du galdetegiak sortu aurretik?

5

- Langile batzuei euskaraz bidali ahal zaie galdetegia eta beste

BAI. Horretarako 2 bidalketa desberdin egingo dira. Batean aukeratuko dira galdetegia euskaraz jasoko duten langileak. Beste bidalketarako, galdetegia elebitan jasoko dutenak aukeratuko dira.

6

- Zelan jokatu hainbat langilek posta helbide bat partekatzen dutenean?

Galdetegi bakoitza posta helbide bakar bati dago lotuta eta behin baino ezin da erantzun. Beraz, langile bakar batek erantzun ahalko du on line; besteek paperean edo aplikazioan bertan erantzun beharko dute.

7

- Erakundeko kide batek bidali ahal du galdetegiaren linka erakundearen helbide batetik?

EZ. Galdetegia bidaltzen da aplikazioaren zerbitzariaren bidez. Beraz, langileei jakinarazi behar zaie SAREGIN NO REPLY moduko mezu bat jasoko dutela.

8

Langile batzuen datuak inportatu ahal dira eta beste batzuk eskuz sartu?

Bai, SAREGINek aukera ematen du datuak eskuz sartzeko edota zerrenda bat inportatzeko.

# Erabiltzaileak zer jakin behar du galdetegiak sortu aurretik?

9

**Eta langile baten datuetan akatsik badago, badago zuzentzerik?**

BAI. SAREGINek aukera ematen du datuak zuzentzeko: Zerrendan langilea aukeratu > LANGILEAK > EDITATU

10

- **Galdetegiak anonimoak dira?**

BAI. Galdetegiak anonimoak dira; beraz, ez da jakingo langile bakoitzak zer erantzun duen. Hori bai, landa-lana errazteko (bidalketak, erantzunen kontrola, gogorarazpen-mezuak bidaltzeko aukera...) langileen izenak eta unitatea/atala... agertuko dira aplikazioan. Erakundeak ikusi beharko du hori zelan jaso behar duen bere datuen babeserako sisteman.

11

**Erantzuteko epeak luzatu edo laburtu ahal dira?**

BAI. Erantzuteko epeak editatu ahal dira beharren arabera. Horretarako: Galdetegiak > Galdetegiak sortu eta kudeatu > Galdetegia aukeratu > Editatu > Hasiera eta amaiera datak

12

**Erantzunak esportatu ahal dira?**

BAI. Erantzunak excel batera esportatu ahal dira. Erantzunez gain, erantzun duen langilearen atala/zerbitzua... ere badago. Horrek atal/zerbitzu... horren egoera hobeto ezagutzeko aukera emango du.

1 urratsa

GALDETEGIAK SORTU:

Langileen galdetegia
Erakundearen galdetegia



# 1. LANGILEEN GALDETEGIAREN HIZKUNTZA AUKERATU

**Administrazioa > Erakundeak > Editatu > Autodiagnostikorako galdetegiak bideratzeko hizkuntza aukeratu**










# 2. ERAKUNDEAREN ETA LANGILEEK GALDETEGIAK SORTU

**Galdetegiak > Galdetegiak sortu eta kudeatu > Gehitu**

- **Galdetegia ele bietan:** Galdetegiaren fitxaren eremu guztiak bete behar dira.
- **Galdetegia euskaraz:** Euskarazko eremuak bakarrik bete behar dira, baina galdetegiaren izena gaztelaniaz eremuan gutxienez karaktere bat idatzi behar da, (espazio bat, ikur bat...) gero inon islatuko ez dena.









# Galdetegiaren fitxa

| | |
|---|---|
| **Erakundea** | erakundearen izena. |
| **Plan estrategikoa:** | erakundearen plan estrategikoaren izena. |
| **Fasea** | dagokion plangintzaldian zein fasea den. |
| **Galdetegi-mota:** | erakundearentzako edo langileentzako galdetegia sortuko den. |
| **Epearen hasiera:** | noiztik aurrera irekiko da galdetegia erantzuteko epea. |
| **Epearen amaiera** | noiz amaituko da galdetegia erantzuteko epea. |
| **Izena euskaraz** | galdetegiaren izena euskaraz. |
| **Izena gaztelaniaz:** | galdetegiaren izena gaztelaniaz. |
| **Testu elektronikoa euskaraz** | langileek euren e-postan jasoko duten mezuan irakurri ahalko duten euskarazko mezua. Kutxan dagoen testua ezin da ezabatu galdetegian sartzeko URLa agertzen delako, baina testu horri beste zerbait gehitu ahal zaio erakundeak egoki ikusiz gero. |
| **Testu elektronikoa gaztelaniaz:** | langileek euren e-postan jasoko duten mezuan irakurri ahalko duten gaztelaniazko mezua. Kutxan dagoen testua ezin da ezabatu galdetegian sartzeko URLa agertzen delako, baina testu horri beste zerbait gehitu ahal zaio erakundeak egoki ikusiz gero. |
| **Hasierako testua euskaraz:** | galdetegian agertuko den euskarazko aurkezpen-testua. Bertan agertzen den testua erakundeak editatu ahal du. |
| **Hasierako testua gaztelaniaz:** | galdetegian agertuko den gaztelaniazko aurkezpen-testua. Bertan agertzen den testua erakundeak editatu ahal du. |
| **Amaierako testua euskaraz:** | galdetegian agertuko den euskarazko amaierako testua. Bertan agertzen den testua erakundeak editatu ahal du. |
| **Amaierako testua gaztelaniaz:** | galdetegian agertuko den gaztelaniazko amaierako testua. Bertan agertzen den testua erakundeak editatu ahal du. |







**Sortutako 2 galdetegien erregistroak agertuko dira pantailan, eta bakoitzarekin lan egiteko, gainean klikatuta, goiko botoiak aktibatuko dira.**

2. urratsa

LANGILEEN DATUAK APLIKAZIOAN KARGATU ON LINE BIDALKETA EGITEKO.



- ## NOLA GEHITZEN DIRA LANGILEEN DATUAK ON LINE BIDALKETA EGITEKO?

**Galdetegiak > Galdetegiak sortu eta kudeatu > Aukeratu langileen galdetegia > Langileak**




- ## LANGILEEN DATUAK GEHITU

**1. AUKERA** LANGILEEN DATUAK ESKUZ GEHITU.







Erakundean langile gutxi badaude edo baten bat gehitu behar denean, langile bakoitzaren datuak, banan-banan aplikazioan kargatzeko aukera dago.

**2. AUKERA** LANGILEEN DATUEN ZERRENDA APLIKAZIORA INPORTATU.

**Inportatu > Ereduak > csv. txantiloia jaitsi > formatuari eutsiz, langileen datuak kopiatu > Inportatu**




- Gelaxka guztiak beteta egon behar dira. daturen bat ez badakigu espazio bat edo karaktere bat gehitu ahal da.
- Deskargatutako .csv artxiboa inportatu behar da, eta artxibo horren formatuari eutsi.
- Bakarrik posta helbidea duten langileak gehituko dira (on line bidalketa egiteko da).
- Langile bakoitzak bere posta elektroniko propioa izango du; hau da, posta helbideak ezin dira errepikatu.

- APLIKAZIOAN KARGATUTAKO LANGILEEN DATUAK IKUSI.

  - Langileen datuak ikusgai izango dira LANGILEAK funtzioaren pantaila nagusian.
  - Datuez gain, galdetegiaren egoera ere agertuko da: BIDALI GABE.

| Izena | Abizenak | E-posta | Egoera | Identifikazioa |
|---|---|---|---|---|
| Julen | Díaz | julend@euskadi.eus | Bidali gabe | HPS |
| Sandra | Fernández | sandra-f@euskadi.eus | Bidali gabe | KULTURA |
| Txema | Izagirre | Txemaiza@euskadi.eus | Bidali gabe | Kirola |

- LANGILEEN DATUAK EDITATU.

  - Langile baten datuak aldatu edo zuzendu behar badira: langilea aukeratu > EDITATU > datuak aldatu

EXCEL | GEHITU | EDITATU | EZABATU | GALDETEGIA BIDALI | INPORTATU

> Iragazketa irizpideak:

| Izena | Abizenak | E-posta | Egoera | Identifikazioa |
|---|---|---|---|---|
| Julene | Moyano | jm-moyano@euskadi.eus | Bidalita | HPS |

- LANGILE BAT ZERRENDAN GEHITU

  - Zerrendan langile bat gehitu behar denean: GEHITU > Langileak gehitu
  - Langile asko badira gehitu beharrekoak, eta oraindik bidalketa egin ez bada, zerrenda eguneratua berriro kargatu ahal da aplikazioan. Zerrenda berri horrek aurrekoa ordeztuko du.

3.urratsa

# LANGILEEN GALDETEGIA ON LINE BIDALI



- ## 1. ZERRENDAKO LANGILEAK HAUTATU

- **Bidalketa bakarra egin behar denean:** goialdeko laukitxoa klikatuko da eta langile guztiak hautatuko dira batera (guztiak horituko dira). Bistaratutako langileak bakarrik aukeratzen dira; beraz, langile kopurua handia denean orria pasatu eta berriz aukeratu langile guztiak.

- **Bidalketa bat baino gehiago egin behar direnean (bidalketa bakoitzean galdetegiaren hizkuntza desberdina delako, edota epe desberdinetan egitea erabaki delako):** banan-banan aukeratuko dira langileak, bakoitzaren alboan dagoen laukitxoan klikatuz. Aukeratutako langileak horituta agertuko dira.

- ## 2. GALDETEGIA BIDALI




| | Izena | Abizenak | E-posta | Egoera | Identifikazioa |
|---|---|---|---|---|---|
| ☑ | Julen | Díaz | julend@euskadi.eus | Bidali gabe | HPS |
| ☑ | Sandra | Fernández | sandra-f@euskadi.eus | Bidali gabe | KULTURA |
| ☑ | Txema | Izagirre | Txemaiza@euskadi.eus | Bidali gabe | Kirola |

- ## 3. LANGILEEK GALDETEGIA JASO

  - Langileek bere korreoan honelako mezu bat jasoko dute:  horregatik komeni da aldez aurretik azaltzea zer jasoko duten (spam-tzat har ez dezaten).



  - Galdetegia ele bietan bidaltzen bada, bi hizkuntzatan jasoko dute galdetegia, euskaraz bakarrik bidaltzen bada, mezua euskaraz baino ez dute jasoko. Mezuan ikusgai izango dute, batetik, langileen galdetegia sortzean idatzitako mezua (zertarako den, erantzuteko epeak...) eta loturan klikatuta, galdetegian sartuko dira eta erantzuten hasi ahalko dira.



## 4. urratsa

# BIDALITAKO GALDETEGIEN KUDEAKETA



# BIDALITAKO GALDETEGIEN EGOERAK

Langileen galdetegia aukeratu > LANGILEAK > Pantailan egoera ikusi.

**1** BIDALI GABE

Langileari oraindik ez zaio galdetegia bidali.

**2** BIDALITA

Langileari galdetegia bidali zaio. Egoera honetan 2 egoera gerta daitezke:

1. Langilea oraindik ez da hasi erantzuten.
2. Langilea erantzuten hasi da, baina erantzunak gordeta ditu eta ez ditu bidali.

3. Langileak galdetegia erantzun badu, baina ez badu BIDALI botoia sakatu, erantzun horiek excelean deskargatuko dira, baina ez dute interbenituko adierazleen kalkuluetan. Excelean adieraziko da ea erantzunak bidalita dauden edo bidali gabe.

**3** ERANTZUN ZAIO

1. Langileak galdetegia erantzun eta bidali egin du.
2. Erantzunak erantzunen excelean agertuko dira (horrela adieraziko da excelean) eta adierazleen kalkuluetan interbenituko dute.

- Erabiltzaileak galdetegien EGOERAri esker jakin ahalko du zenbat langileri bidali zaien, zenbatek ez duten erantzun eta zenbatek erantzun eta bidali duten.
- Iragazketa irizpideetan, egoeraren arabera iragazi ahalko ditu datuak.




- Erantzunen kudeaketari buruzko datuak ere excel batean deskargatu ahal dira




- Erantzun ez duten langileei mezu berri bat bidali ahalko zaie gogorarazteko erantzun behar dutela. Horretarako bakarrik langile horiek aukeratuko dira, eta eurei berriro bidaliko zaie mezua.

- Jasoko duten mezuaren edukia eta erantzuteko epeak editatu ahal dira. Horretarako langileen galdetegia sortu dugunean egindako urratsak errepikatuko ditugu: Galdetegiak > Galdetegiak sortu eta kudeatu > aukeratu langileen galdetegia > editatu.

# Posta helbiderik ez duten langileen galdetegia





1. Galdetegia inprimatu (SAREGINen bidez, horrela plan estrategikoa osatzen duten adierazleei lotutako galderek osatuko dute galdetegia). Erabiltzailea euskarazko bertsioan ari bada, galdetegia euskaraz inprimatuko da. Gaztelaniazko galdetegia aplikazioaren gaztelaniazko bertsiotik eskuratzen da. Hizkuntza aldatzeko: pantailaren goialdean, ezkerreko aldean: EU | ES

2. Langileei galdetegia eskuratu, bete dezaten. Oso garrantzitsua da paperean adieraztea euren atala /zerbitzua... (Identifikazioa)

3. Galdetegiak betetakoan, jaso.

4. Erantzunak aplikazioan sartu. (ordenagailu bat habilitatu ahal da, paperean erantzun beharrean, langileek zuzenean aplikazioan erantzuteko): Galdetegiak > Galdetegiak kontsultatu eta erantzun > Langilearen galdetegia bete









langileen galdetegia proba 1

Otsailaren 22ko 19/2024 Dekretuak arautua du Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua. Dekretu horren arabera, euskararen erabilera normalizatzeko plana onartu, gauzatu eta bere jarraipena egin behar du entitate bakoitzak. 2023an hasi zen Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko VII. Plangintzaldia. Gure erakundean plangintzaldi honi dagokion Euskara Normalizatzeko Plan Estrategikoa eta berau garatzeko kudeaketa-planak diseinatu ahal izateko, ezinbestekoa dugu gure erakundean euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketari buruzko hasierako diagnostikoa egitea; horrela bakarrik ezagutuko dugu zein den gure abiapuntua plangintzaldi osorako helburuak jarri ahal izateko. Diagnostiko hori osatzen laguntzera dago bideratuta galdetegi hau, zure hizkuntza-praktikei eta hainbat atalen gaineko zure iritziari buruzko informazioa eskuratu ahal izateko. Horretarako, honako galdetegi honi erantzutea eskatzen eta eskertzen dizugu. Minutu gutxi batzuk besterik ez duzu beharko, eta emango diguzun informazioa ezinbestekoa izango da aipatutako diagnostikoa egin ahal izateko.

24 galdera daude inkestan

Hurrengoa

5. Aplikazioan betetzen den langileen galdetegi bakoitzerako, HURRENGOA botoia sakatuta, dentifikatzeko kode bat sortuko da. galdetegia identifikatzeko balio duena eta bakarra dena:




Lehen esan bezala, garrantzitsua da lotzea kode hori identifikaziorako erabilitakoarekin, beteko den galdetegian identifikazio eremua desaktibatuta dagoelako. Horrela, erantzunen excela deskargatzean kode hau ordeztu ahal da, eta bere lekuan jarri dagokion atala...

# Erakundearen galdetegia



- Erakunderaren galdetegia bakarra da eta komeni da erakundean erabilera plana sortu eta kudeatzeko sortutako talde eragilerak lanketa egitea eta galdetegiari erantzutea, arlo desberdinetako galderak daudelako, hori dela eta ikuspegi zabala izatea komeni da.

- Galdetegia ez zaio inori on line bidaliko, aplikaziotik bertatik erantzungo zaio.

- Plan estrategikoa osatzen duten adierazleei lotutako galderek osatuko dute erakundearen galdetegia.

- NOLA ERANTZUN GALDETEGIARI APLIKAZIOAN? Galdetegiak > Galdetegiak kontsultatu eta erantzun > Erakundearen galdetegia bete

- Galdetegirako kodea sortuko da, bakarra dela, behin baino ez dela erantzuten bermatzeko.












## Sortutako erreferentzia-kodeak

| Erreferentzia-kodea | Galdetegi mota | Eredua | Erantzuna | Erantzun data |
|---|---|---|---|---|
| | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| C-00051-001 | Erakundea | Ubideko Udala. Erakundearentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| C-00052-001 | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| C-00052-002 | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Ez | |

## Galdetegien egoera

| Erreferentzia-kodea | Galdetegi mota | Eredua | Erantzuna | Erantzun data |
|---|---|---|---|---|
| | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| C-00051-001 | Erakundea | Ubideko Udala. Erakundearentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| C-00052-001 | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| C-00052-002 | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Bai | 2023/10/24 |
| | Langilea | Ubideko Udala. langileentzako galdetegia | Ez | |

## Zelan gorde sartutako erantzunak eta beste momentu batean jarraitu?

Galdetegian, GORDE sakatuta, erantzunak gordeko dira. Erabiltzailea beste momentu batean erantzuten jarraitzeko: galdetegia aukeratu eta IKUSI ETA ERANTZUN funtzioarekin jarraituko du erantzuten. Gauza bera, betetzeko galdetegia sortu bada, baina erantzunak sartzen hasi ez denean.

Galdetegien kontsulta

ERAKUNDEAREN GALDETEGIA SORTU | LANGILEAREN GALDETEGIA SORTU | IKUSI ETA ERANTZUN

› Iragazketa irizpideak: *Erakundea = proba1;*

| Erreferentzia-kodea | Galdetegi mota | Izena | Erantzuna | Erantzun data |
|---|---|---|---|---|
| | Langilea | langileen galdetegia proba 1 | Ez | 2024/05/29 |
| | Langilea | langileen galdetegia proba 1 | Ez | 2024/05/29 |
| | Langilea | langileen galdetegia proba 1 | Ez | 2024/05/29 |

5. urratsa

# GALDETEGIAK ITXI ETA ADIERAZLEEN BALIOA KALKULATU



## • ERANTZUTEKO EPEA AMAITUTZAT EMATEN DENEAN...

Bai erakundearen galdetegia bai langileen galdetegia banan-banan aukeratu eta itxiko dira. Biak batera itxiko dira, bestela, bat bakarrik itxiz gero, horren gaineko kalkuluak egingo dira.




## • ZER GERTATZEN DA BI GALDETEGIAK IXTEN DIRENEAN?

Aplikazioa plan estrategikoa osatzen duten adierazleen hasierako ehunekoak kalkulatzen hasiko da.




Ekintza hau ezin da gelditu; hau da, ez du atzerakorik: ezingo da galdetegi gehiagoren erantzunik gehitu, eta galdetegiei lotutako plan estrategikoa ezingo da ezabatu.

Bi orduren buruan kalkuluak eginda egongo dira eta ikusteko moduan egongo dira, bai Plan estrategikoa > Edukia funtzioan, bai Adierazleen jarraipena funtzioan.

4

# Diagnostiko kualitatiboa



- Diagnostiko kualitatiboa edozein momentutan egiten has daiteke. Hasierako datu kuantitatiboak izan aurretik hausnarketa kualitatiboa egin badaiteke ere, datu kuantitatiboak aurrean izateak, zalantza barik, lagunduko dio erabiltzaileari.

- Arlo mailako hausnarketa egingo du puntu hauei buruz: EGOERA, EGINDAKOAK, INDARGUNEAK eta ZER HOBETUAK.

- Horretarako: Plan estrategikoa > Plan estrategikoa aukeratu > Edukia > Arlo mailaraino jaitsi

ADIERAZLEEN EGOERA AZTERTUTA, AUKERA DAGO PLAN ESTRATEGIKOA OSATUKO EZ DUTENAK DESAKTIBATZEKO. DESAKTIBATZEN DIRENEAN, PUNTUAZIOA BERKALKULATZEN DA HAINBANAKETA EGITEN DELAKO

DESAKTIBATUTAKO ADIERAZLEAK EZ DIRA PLAN ESTRATEGIKOAN AGERTUKO. HORREGATIK, DESAKTIBATU AURRETIK, ADIERAZLEEN JARRAIPENA FUNTZIOTIK DESKARGATU BEHAR DA INFORMAZIO KUANTITATIBO OSOA DUEN EXCELA. BESTELA GALDUKO DA. HORI GERTATUZ GERO, BERRIRO AKTIBATU.



5

# Erronkak, helburu estrategikoa eta helburuak zehaztu



- DIAGNOSTIKO KUANTITATIBOA ETA KUALITATIBOAK EGINDA, ZEHAZTUKO DIRA
    - Plan estrategikoaren IKUSPEGIA.
    - Ardatz bakoitzarentzako ERRONKAK.
    - Arlo bakoitzarentzako HELBURU ESTRATEGIKOAK.
    - Adierazle bakoitzarentzako HELBURU KUANTITATIBOAK (aurreikusitako %), eta hala badagokio, HELBURU KUALITATIBOAK.

1.0.1.1 Erakundeak plan estrategiko eta kudeaketa-planak kudeatzeko sistema egituratua osatu du

Helburua(k) (H.1)

| Hasierako % | Aurreikusitako % | Aldea | Amaierako % |
| --- | --- | --- | --- |
| % 10 | % 100 | % 90 | % |

Norantza biko bidea izan daiteke:

Adierazleen helburuak zehaztuta, ardatzen erronkak finkatu ahal dira, edo ardatz mailako erronkak finkatuta, adierazle-mailako helburuetara jaitsi ahal da. Hori erakundeak erabaki beharko du.

Hasieran, ATARIKOA izeneko testu-kutxa ere badago. Bertan erakundeak egoki ikusten duen informazio guztia aipatzeko (udalerriaren, erakundearen ezaugarriak, DI, DIren betetze-maila, diagnostikorako erabilitako metodologia...).

PLAN ESTRATEGIKOAREN DOKUMENTU OSOA (DATU KUALITATIBOAK ETA KUANTITATIBOAK) DESKARGATU AHAL DA WORD EDITAGARRI BATEAN.

# 3. atala

## Adierazleen jarraipena egin.

1. URTEZ URTEKO JARRAIPENA EGIN.
2. ADIERAZLEEN BALIOA EDITATU.
3. EUSKARAZKO ZEIN ELE BIETAKO BALIOA IKUSKATU.

- NOLAKO JARRAIPENA EGITEN DA FUNTZIO HONEKIN?

Plan estrategikoa osatzen duten adierazleen jarraipen kuantitatiboa egiten da funtzio honen bidez.

- NOIZ EGIN BEHAR DA JARRAIPENA?

Aplikazioak aukera ematen du urtero jarraipena egiteko. Horretarako urte bakoitzean elikatu behar da datu kuantitatiboekin (bai datuak eskuz sartuz, bai galdetegiak sortuz eta automatikoki datuak lortuz).

Erakundeek aginte panela osatzen duten 14 adierazleen berri eman behar du plangintzaldiaren 1., 3. eta 5. urtean.

- ADIERAZLEEN JARRAIPENA FUNTZIOAK ZEIN AUKERA ESKAINTZEN DITU?

1. Hasierako eta aurreikusitako balio kuantitatiboak eta horien arteko aldea erakusten dira funtzio honetan: Ehunekoak zein puntuazioa (Bikain ebaluazio prozesuaren hedadurarekin lerrokatutakoa). Bikaini begira, hedadurarako aurreikusitako puntuazioa ebaluazio prozesuarekin guztiz lerrokatuta izateko ezinbestekoa da adierazle guztiak kontuan hartzea.

   Balio kuantitatibo horiek maila hauetan daude ikusgai:

   Adierazle-mailan
   Arlo-mailan.
   Eremu-mailan.
   Ardatz-mailan
   Plan estrategiko mailan.

2. Txostena excel formatuan deskargatu ahal da EXCEL botoiarekin.
3. Adierazle guztien hasierako eta aurreikusitako ehunekoak editatu ahal dira eskuz:

   ADIERAZLEA AUKERATU > EDITATU > Ehunekoak editatu

4. Horrelakorik dagokienean, adierazleen ehunekoak euskaraz eta ele bietan kontsultatu:

   ADIERAZLEA AUKERATU > ADIERAZLEEN EHUNEKOA EUSKARAZ ETA ELE BIETAN



Adierazleen jarraipena

EDITATU | ADIERAZLEEN EHUNEKOA EUSKARAZ ETA ELE BIETAN | EXCEL

› Iragazketa irizpideak: *Erakundeak = proba1;*

1. urtea | 2. urtea | 3. urtea | 4. urtea | 5. urtea

| Kodea | Izena | % | Aurreik% | Pt | AurreikPt | Aldea% | AldeaPt |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | Proba1 | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1 | KUDEAKETA | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.1 | EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.1.2 | Plan estrategiko, kudeaketa-plan eta hizkuntza-irizpideen jarraipen sistematikoa egiten da | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.2 | LIDERGOA | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.2.4 | Arduradun politiko eta teknikoek jarrera proaktiboa erakusten dute, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan finkatutako helburuak bete daitezen. | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.2.5 | Arduradun politiko eta teknikoek parte hartzen dute plan estrategiko eta kudeaketa-planen diseinuan, garapenean eta jarraipenean. | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.2.6 | Izendatutako arduradunek dagozkien adierazleen datuak biltzen dituzte, plan estrategiko eta kudeaketa-planetan zehaztutako moduan. | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.3 | LANGILEAK | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |
| 1.0.3.7 | Langileei ematen zaie informazioa erakundeko plan estrategiko, kudeaketa-planei eta hizkuntza-irizpideei buruz, eta argi dute beren jardunean zeintzuk bete behar dituzten. | %0,00 | %0,00 | 0,00 | 0,00 | %0,00 | 0,00 |

# Adierazleen jarraipenerako pantaila

# Erabiltzaikeak zer jakin behar du Adierazleen jarraipenari buruz?

**1**

- Bertan agertzen dira plan estrategikoa osatzen duten adierazle guztiak, eta guztiek interbenitzen dute kalkuluetan

**2**

- Nahiz eta galdetegian adierazle bati lotutako galderan EZ DAGOKIO jarri, Adierazleen Jarraipena funtzioan adierazle horren balioa % 0 izango da, eta kalkuluetan kontuan hartuko da. Adierazlea ez badagokio, erabiltzaileak DESAKTIBATU EGIN BEHARKO DU, horrela, berari dagokion puntuazioa arloko gainontzeko adierazleen artean hainbanatuko da.

**3**

- Erakundeak erabakitzen badu adierazleren bat plan estrategikoan ez sartzea, desaktibatu egingo du. Hori eginda, aplikazioak berriro egingo ditu kalkuluak, dagozkion hainbanaketak txertatzeko, eta puntuazioak egokitzeko.
- Beraz, komeni da deskargatzea hasierako bertsioa, kalkululuen (neurtutako adierazle guztiak dituena) informazioa ez galtzeko.

**4**

- Puntuazioari dagokionez, adierazleen puntuazioa hainbanatzen da arloko gainontzeko adierazleen artean, baina erakundeak erabakitzen badu arlo oso bat ez sartzea plan estrategikoan, arloari egokituko zaion puntuazioa % 0 izango da, eta horrela hartuko da kontuan gorako mailako kalkuluetarako.
- Arrazoia: normala da adierazleren bat erakunde bati ez egokitzea, ez, ordea, arlo oso bat.

## Adierazleen jarraipena urtez urte

- Hasieran eta plangintzaldian zehar jarraipena egiten den urte bakoitzean, plan estrategikoa osatzen duten adierazleen egoera kuantitatiboa (% eta pt.) bistaratuko da pantaila nagusi honetan.
- Datuak excel batera esporta daitezke.




| Kodea | Izena | % | Aurreik% | Pt | AurreikPt | Aldea% | AldeaPt |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 0 | Probarako plan estrategikoa | %0 | %0 | 0 | 0 | %0 | 0 |
| 1 | KUDEAKETA | %0 | %0 | 0 | 0 | %0 | 0 |
| 1.0.1 | EUSKARAREN KUDEAKETA OROKORRA | %0 | %0 | 0 | 0 | %0 | 0 |
